

EUSKARA BATZORDEAK 2018ko MAIATZAREN 31n IZANDAKO BILKURARI DAGOKION AKTA.-

Batzarreratuak:

Marisa Aldamizetxebarria and (Euskara Zinegotzia)
Jon Argintxona jn. (BILDU)
Igone Olabarria and.
Pili Ibarra (Berbalagun/ Aek)
Luis Ortuzar jn. (Gernika BHI Institutua)
Ainara Artetxe and. (Seber Altube)
Bidane Gartzia (Allende Salazar)
Ziortza Polin (EAJ-PNV)
Luis Ortuzar jn. (Txara-Txara elkarte)
Estiñe Astorkia and. (Hitzargune/Euskara dinamizatzailea)
Bittor Zarrabeitia jna. (Batzordekoa idazkaria / Euskara Teknikaria)

Hasiera ordua: 18:30
Amaiera ordua: 20:15

Ezin etorria zuritu dutenak:
Leire Zabala and.
Rosa Okariz and.

AZTERGAI BAKARRA.- 2023rako irudikatu dugun euskararen egoera lortzeko (ikusitako finkatu zen koadroa), ZER FALTA DEN eta ZER EGIN DEZAKEGUN zehaztea.

Ikusirik bildutakoen kopurua aproposa dela talde bakarrean aritzeko, aztergaia helburu estrategiko bakoitzeko lantzeari ekin zaio.

Lehenengo helburua estrategikoari (ondorengoetaratzea/transmisioa) dagokion taula osatu da eta honako esparruak landu dira: familia / irakaskuntza / Euskalduntze-alfabetatzea.

Bigarren helburu estrategikoari dagokionean (euskararen erabilera) landu diren esparruak honakoak dira: administrazioa / gune geografiko euskaldunenak / Arlo sozio-ekonomikoa.



Hurrengo batzarrerako geratu dira hurrengo hausnarketak:

- Bigarren helburu estrategikoarekin lotuta dagoen “Asia eta kirola”-ren esparrua.
- Hirugarren helburua estrategiko osoa (euskara elikatzea). Esparruak: Liburugintza / Kulturgintza / Corpusa / Hedabideak / IKTak (Informazioa eta Komunikazioaren teknologia berriak).

Erabakiak.-

1).- Lehenengo helburu estrategikoari dagokionean, ZER FALTA DEN eta ZER EGIN taulak finkatutzat ematea (1. Eranskina).

2).- Bigarren helburu estrategikoari dagokionean, aipatu taulak finkatutzat eman hurrengo esparruetan: administrazioa / gune geografiko euskaldunenak / Arlo sozio-ekonomikoa (2. Eranskina).

3).- Batzar honetan aztertzeke geratu denerako (2. Helburu estrategikoko “aisia-kirola” eta 3. Helburu estrategikoa osoa), ekainaren 26an, 18:30ean, egitea hurrengo batzarra.

Eta aztergai gehiagorik ez dagoenez, amaitutzat jo da batzarra.

Izp.: Euskara Zinegotzia
Marisa Aldamizetxebarria

Izp.: Euskara Teknikaria
Bittor Zarrabeitia

